


bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak.



Gehiago jakiteko

Zalantzak argitzeko, erantzunak bilatu
eta zure iritzia emateko.



natura 2000



biodibertsitatea
eta paisaia
BIODIVERSIDAD Y
PAISAJE

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA



Obra Social "la Caixa"

Galdetu egin ez zenuena eta, agian, jakin nahi duzuna. Natura 2000ri buruzko galderarik ohikoenak.

1. Natura 2000 barruan giza ekintzak debekatu nahi al dira?

Natura 2000 Sareak ez du basa-bizitzarentzat santutegirik sortu nahi, onartzen baitu gizakia naturaren zati garrantzitsua dela. Eta zenbait habitat naturaletako basalandareak eta animaliak pertsonen ekintzek ahalbidetzen dituzten ingurumen-baldintzei esker bizi dira.

Adibidez, larre batzuk beste inon aurkitu ezin diren espezieak dituzte. Basa-animalia askok ere ez lukete elikagairik topatuko, abeltzaintzari esker mantentzen diren larreak existituko ez balira. Baina zenbait lekutan abeltzaintza desagertzen ari da, abeltzaintza intentsiboarekin alderatuta ez delako lehiakorra. Kasu horietan, pertsonen ekintza ez da mugatuko eta gainera, diru-laguntza publikoetan lehenetsua izango du etorkizunean jarrai dezan.

Pertsonen ekintzek biodibertsitatean eragin positiborik ekartzen ez badute ere, nahikoa izango da eragin negatiborik sortzen ez duela frogatzea, horiekin aurrera jarraitzeko.

2. Zer zerikusi dute Natura 2000 tokiek natura-gune babestuekin?

Orain arte ez da adostasunik egon, Europako Habitaten Zuzentzaruari jarraituz izendatutako tokien eta herrialde bakoitzaren legeriaren arabera izendatutako natura-guneen artean egon behar duen erlazioaz. Bi kasuetan natura balioak babestu behar diren arren, kasu bakoitzean bete behar diren baldintzak ezberdinak dira, legeriaren arabera. Euskadin, euskal legeriak izendatutako natura-gune babestu gehienak Natura 2000 Sarean sartu dira Europa mailan balioa duten habitat eta espezieak bizi direlako. Gune horiek Europako eta Euskal Autonomia Erkidegoko legeria bete behar dute. Etorkizunean gerta liteke natura-gune batzuk Natura-gune Babestuen Euskal Sarean egotea eta ez Natura 2000 Sarean, eskualde-ikuspuntutik garrantzitsuak diren natura balioak dituztelako baina ez hainbeste ikuspuntu europarretik; edo alderantziz, Natura 2000 Sareko toki guztiak ez dira Natura-gune



8. Zein laguntza eskura ditzakete Natura 2000n bizi eta lan egiten dutenek?

LIFE funtsak Europa mailan interesa duten habitat naturalak eta espezieak zaindu eta berreskuratzeko proiektuetara bideratuta daude.

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzan lan egiten dutenek Landa Garapen Jasangarrirako proiektuetarako dauden laguntza ezberdinak jaso ditzakete. Laguntzak daude nekazaritzako elikagaien zonaldean egoteagatik, ustiapenetako inbertsioetarako, produktuak merkaturatzeko edo nekazaritza eta basoko jardueren dibertsifikaziorako.... Herrialde askok aprobetxatu dituzte zuzeneko laguntzen Baterako Nekazaritza Politikak eskaintzen dituen aukerak biodibertsitatearentzat onuragarriak diren konpromiso zehatzak hartzen dituzten ekoizleen alde gogor egiteko. Horregatik, desagertzeko arriskuan dauden bertako ganadu arrazak mantentzeko laguntzak ezarri dira, larreetako mugetan heskaiak eratzeko, bertako basoak landatu eta hobetzeko edo sega-belardiak eta basa-landarez beteriko belardi erdi naturalak mantendu eta berreskuratzeko, besteak beste.

Natura 2000 Sarearen barnean dauden itsasertzeko uretan arrantzatzen duten arrantzaleek IFOP europar funtsaren laguntzak jaso ditzakete arrantza eredu jasangarriak ezartzeko eta itsas biodibertsitatearekin bateragarriak diren beste jarduera ekonomikoak martxan jartzeko .

Europar Batasuneko hainbat herrialderen arteko lankidetzeta-programek ere garapen jasangarrirako eta kontserbaziorako proiektuak finantza ditzakete baterako ingurumen legeria, eta nola ez, Natura 2000 Sarea, aurrera eramaten lagunduko dutenak .

Ebaluazio prozedurak herrialde bakoitzak hartuko ditu bere gain, baina betiere erabakiak hartzeko garaian gardentasuna bermatu beharko da, eta interesdun guztien, proiektuak zuzenean eragiten dienen edo Natura 2000 behar bezala garatu dadin kezkatuta dauden talde sozialen parte hartzea.

7. Natura 2000 garatzeko hartzen diren erabakietan nola har dezakete parte Udaletxe, tokiko erakunde edo interesa duen edonork ?

Eusko Jaurlaritzak erabaki du Natura 2000 Sarea errealitate bilakatzeko modurik onena sareko eremu bakoitza bere kudeaketako tresna propioez hornitzea dela. Tresna horiek bilduko dituzte eremuen zaintza egoera ona lortzeko hartu beharreko neurriak, administrazioak edo dagokien talde publiko zein pribatuek aplikatu ahal izango dituztenak. Interesdun eta jendarte-eragile guztien interesak kontuan hartzen direla ziurtatzeko, berriz, plan bakoitzak jendartearen parte-hartze prozesua izan dezala erabaki da.

Garrantzitsua da Euskadiko administrazioiko maila eta alor guztiak kudeaketa planetan eta Natura 2000ko eremuen kudeaketan inplikatzeko, baita hiritarrak ere. Eusko Jaurlaritzak, sarea osatzen duten eremuen segurtasun ekologikoa mantentzeko duen arduraz gain, beste erakunde publiko zein pribatuek ere lagun dezakete, beraien errekurtsuak erabiliz, sareak euskal natura ondarea zaindu dezan beharrezko neurriak aplikatzen.



Babestu izendatu. Dena dela, aditu gehienek gomendatzen dute Natura 2000ko toki guztiak natura-gune babestuen eskualdeko sareetan sartuta egon daitezela.

3. Natura 2000 barruan zer betebeharrak hartzen ditu bere gain euskal gobernuek eta euskal jendarteak ?

Toki bat Natura 2000ko izendatzean, konpromisoa hartzen dugu izendapen hori ahalbidetu duten bertako habitat naturalen eta baso-landare eta animalia espezieen babesa epe luzera bermatzeko. Horretarako, beharrezkoak diren neurri aktiboak hartuko ditugu eta inongo proiektu edo ekintzak hondatu ez dituzan lan egingo dugu.

Europar Komisioa ere aldian-aldian informatu beharra dago, berme hori lortzeko egiten ari garena eta lortzen ari garen emaitzak azalduz. Horretarako, jarraipen-programa bat jarri behar martxan, sareko toki bakoitzean habitatek eta espezieek duten egoera eta joera uneoro ezagutzeko.





4. Natura 2000ak guneak ere babesten al ditu ala espeziek bakarrik?

Natura 2000ren helburua izendatutako guneen segurtasun ekologikoa bermatzea da. Zientifikoek ustetan, espezieak babesteko, bertan bizitzen jarraitzea ahalbidetzen duten ingurumen baldintzak mantendu edo berritu behar dira. Buru-hausgarri batean ez dira garrantzitsuak piezak bakarrik, pieza horiek beren lekuan egon daitezela eta ondoko piezekin bat etor daitezela baizik; ekosistema batean pieza guztiak, espezie guztiak, dira garrantzitsuak, baina baita euren arteko harremanak eta bizi diren ingurunearekiko duten erlazioa ere. Askotan ezezagunak ditugun erlazio horiek dira, hain zuzen, ingurumen baldintza egokiak sortzen dituztenak; bada, baldintza horietan izaten dute ekosistemek ahalmena, gure ongizate eta bizi kalitaterako ezinbestekoak ditugun ingurumen zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko.. ak. Espezieak babestea, beraz, oinarritzko helburu bat lortzeko bidea besterik ez da, ekosistemen osasuna eta segurtasuna mantentzeko bidea.

5. Natura 2000tik kanpo habitat edo espezieei eragiten dien edozein gauza egin al daiteke, nahiz eta horiek Habitaten Zuzentarauaren barnean egon?

Zuzentarauak dio ezin dela Natura 2000ren segurtasuna hondatuko duen ezer egin, ezta kaltea eragiten duen ekintza gunetik kanpo baldin badago ere. Esaterako, ezin dugu erreka baten emaria aldatu edo ekintza kutsatzailerik bat baimendu, errekan behera eta Natura 2000 Sarean dagoen zatiren bati kalteak eragiten badizkio. Modu berean, ezin dugu sistema natural baten drainatzea aldatu eta ur kantitate jakin bat Natura 2000n sartuta dagoen hezegune batera desbideratu, horrekin habitatak eta bertako espezieak kaltetzen baditugu.

Natura 2000tik kanpo, habitat naturalen eta basa-espezieen gaineko eraginak saihestu behar dira, ahal den heinean beti kalte gutxiago eragingo luketen aukerak aztertuz, eta besterik ezean, egindako kaltea konpentsatuko duten neurriak hartuz. Horrela bakarrik mantendu eta hobetuko dugu Euskadiko ekosistemen egoera orokorra.

Espezie batzuen bizitza-ziklorako garrantzitsuak diren tokiak zaintzeko ere agintzen du Zuzentarauak, horiek Natura 2000ren barne edo kanpo egonda ere, batez ere bizitzeko lurralde eremu zabalak behar dituzten espezieen kasuan. Horregatik, espezie horiek hazi, elikatu eta leku batetik bestera joateko erabiltzen dituzten guneak errespetatu behar dira, nahiz eta Natura 2000tik kanpo egon.

6. Baimendu al daitezke proiektu edo ekintza berriak Natura 2000n?

Ezerk ere ez du galarazten ekintza edo proiektu berri bat baimentzea, hura ebaluatu eta sarean sartzea ahalbidetu zuten balioek arriskurik ez dutela frogatu ondoren.

Bestela, eta konponbiderik ezean, ekintza modu ezohikoan eramango litzateke aurrera, betiere lehen mailako interes publikoa duela ikusten bada. Kasu horretan konpentsaziozko neurriak hartu beharko lirateke kontuan eta Europako Batzordeari ditzera eman. Dena dela, leku batek lehentasunezko habitatak edo espezieak baldin baditu, osasun, segurtasun publiko edo ingurumenarekin loturiko lehen mailako interes publikoko ekintzak bakarrik baimenduko dira. Gainera, kasu horretan, aurretik Europako Batzordeari kontsulta egin beharko zaio.





9. Non lor daiteke Natura 2000ri buruzko informazio gehiago?

Informazio gehiago lortzeko, jo ezazu ondorengoetara:

- Eusko Jurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren web orria

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r494975/es/contenidos/informacion/natura_2000/es_10989/indice.html

- Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioaren web orria

<http://www.mma.es/portal/secciones/biodiversidad/rednatura2000/>

- Europar Batzordeko Ingurumen Zuzendaritzaren web orria

http://ec.europa.eu/environment/nature/index_en.htm